

BILBO

Karmelo ikastolea Behartsuen Senidetxoetara eroan guran dabilz

Santutxuko Karmelo ikastoleak hamar urteko burrukea daroa ikastola duina lortu ahal izateko. Etxebizitza baten lonjetan daukie gaur egun ikastolea, eta Bilboko Udaleko teknikariek egin dituen azterketetan egoera alegalean dagozala esan dabe. Fede Arruti arkitektoak ikastola barria izan ahal danaren planoak egin deustsiez. Behartsuen Senidetxoak eremuan egingo diran etxeen inguruan 3.000 metro koadro hartuko leukez.

BERMEO

Sarrerako zeharkalean asfaltoa botaten hasi dira

Bermeoko bihurtunea atontzen hasi ziran atzo goizean. Mundakara bidean dagoen gasolindegia zaharrean hasi ziran beharrean. Bermeoko sarrerako bideak konpontzeko beharrak BI-635 eta BI-631 errepiden luzera guztian egingo dira. Auto eta kamioi asko igaroten da egunero bide horretatik. Hori dala eta, errepidearen zorua txarto egoan. Kotxeen amortiguadoreek obrak eskertuko dituela dinoe bermeotarrek.

MARKINA-XEMEIN

Industrialdeko lur izendapen aldaketari alegazinoa

Markina-Xemeingo Udalak Kareaga industrialdean lurren izendapena aldatzeko hartu dauen erabagiaren aurka alegazinoa aurkeztu dau Ekozain talde ekologistek. Industrialdearen garenak naturearen babesagaz bat etorri behar dauela nabarmendu dau Karmelo Jaiok, talde ekologistako ki-deak.

ALDUNDIA. Garraioa

Metroaren 2. linea amaitu arte ez dabe Maidagango pasagunea lurperatuko

Maidagango pasagunea lurperatzeko proiektua eginda dago, baina Jose Felix Basozabal Herri Lan eta Garraio Saileko diputauak agertu ebanez, behar horreek finantzatzeko dirurik ez dauka gaur egun Bizkaiko Foru Aldundiak. «Metroaren bigarren linea dala-eta, Garraio Partzuergoaren zorrak handiak dira. Beste proiektu batek arriskuan ipiniko leuke partzuergoaren finantzaketean», esan eban diputauak. Maidagango

Pasagunea lur azpitik igarotea 8,29 milioi euro izango da

obren inguruan egin daben aurrekontuaren arabera, pasagunea lurperatzeko beharretarako 8,29 milioi euro beharko litzakez. Dirutza hori mahai ganean ipini ahal izateko modu bakarra metroaren bigarren lineako

obrak amaitu arte egotea da, Jose Felix Basozabal Herri Lan eta Garraio Saileko diputauak Batzar Nagusietako Azpiegituren batzordearen aurrean adierazo ebanez.

INGURUMENA. Giza eskubideak



JON HERNANZ / ARGAZKI PRESS

Bilbotik Ipar Polora

Guillermo Bañales eta Josu Feijoo mendigozale bizkaitar eta arabarra Ipar Polora joango dira datorren hilean. Apirilaren 3an hartuko dabe Bilbon harantzako bidea, eta Ipar Poloko puntara ailegetan lehenengo euskaldunak izango dira. Eta han, planetaren gorengo muturrean, Maria Esther Solabarrieta ingurumen

diputauak emondako agiria ipiniko dabe, aluminiozko ontzi baten. Ingurumenaren Giza Eskubidearen ganeko idatzia da, euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzita. Atzo emon eutsen Solabarrietak agiria, «isiltasuna nagusi dan lekuan, hegoalderako bidaia hasten diran inguruan ipinteko», esan eban diputauak.